BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4513

AGINDUA, 2011ko abuztuaren 2koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusiaren osaera eguneratzen duena.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko otsailaren 26ko Aginduaren bidez, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusiko kideak berritu ziren. Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundean ordezkaritza daukaten erakundeetako batzuek beraien ordezkariak aldatzeko proposamena egin dutenez, beharrezkoa da zenbait kide kargutik kendu eta beste batzuk izendatzea, erakunde autonomo horren jarduera garatzeko ezinbestekoa den Kontseilu Nagusiak normaltasunez lan egin dezan.

Horrez gain, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 22ko 42/2011 Dekretuak aldaketak eragin ditu Osalanen Kontseilu Nagusian ordezkaritza duten zenbati zuzendaritzaren egituran eta izenean, eta hori eguneratze honetan islatu behar da.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzeko abenduaren 21eko 7/1993 Legearen 6. artikuluko 7. paragrafoan eta erakunde horren egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartu zuen uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuaren 6. artikuluko 4. paragrafoan agindutakoa kontuan hartuz, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusiko kide hauek kargutik kentzea.

Kidea-Titularra:

– María Jesús Iriarte Cillauren andrea, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak proposatuta.

Kidea-Titularra:

– Matías Gómez Conde jauna, Confebask-Euskal Enpresarien Konfederakuntzak proposatuta.

Kidea-Ordezkoa:

– Juan Luis Federio Aspiazu jauna, Confebask-Euskal Enpresarien Konfederakuntzak proposatuta.

2. artikulua.– Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusiko kide hauek izendatzea.

Kidea-Titularra:

– Juan María Concha Aspiroz jauna, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak proposatuta.

Kidea-Titularra:

– Montserrat Ruiz Mitjans andrea, Confebask-Euskal Enpresarien Konfederakuntzak proposatuta.

Kidea-Ordezkoa:

– Gonzalo Salcedo Bilbao jauna, Confebask-Euskal Enpresarien Konfederakuntzak proposatuta.

3. artikulua.– Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusiko kideak izendatzea eta horien zerrenda argitaratzea. Hauek izango dira organo horretako kide:

Presidentea:

– Titularra: Sonia Pérez Ezquerra andrea, Laneko sailburuordea.

– Ordezkoa: Gloria Múgica Conde andrea, Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria.

Presidenteordea:

● Titularra: Jesús M.ª Fernández Díaz jn., Osasuneko sailburuordea.

● Ordezkoa: Mercedes Estébanez Carrillo and., Osasun Publikoko zuzendaria.

Kideak:

– Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkariak:

● Titularra: Katrin Begoña Iturrate Zamarripa andrea, Laneko zuzendaria.

● Ordezkoa: Fco. Javier Díez Miguel jauna, Enplegu eta Gizarte Gaietako Gipuzkoako ordezkaria.

● Titularra: Álvaro Iradier Rosa jauna, Enplegu eta Gizarte Gaietako Arabako ordezkaria.

● Ordezkoa: Felipe Yarritu Díaz jauna, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren zuzendaria.

● Titularra: Iciar González Carrasco andrea, Enplegu eta Gizarte Gaietako Bizkaiko ordezkaria.

● Ordezkoa: Mariano Cortés Sáez jauna, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Lan Aktibazioko zuzendaria.

– Osasun eta Kontsumo Sailaren ordezkariak:

● Titularra: Concepción Castells Carrillo andrea, Bizkaiko Osasun Publikoko zuzendariordea.

● Ordezkoa: José M.ª Arteagoitia Axpe jauna, Osasun Publikoko teknikaria.

– Udalek eta foru-aldundiek esan beharrekoa entzun ondoren Eusko Jaurlaritzak izendatutakoak:

● Titularra: Javier Gil Fernández jn., Lan Harremanen zuzendaria.

● Ordezkoa: Ismael Gorostiza Fernández-Villarán jn., Prebentzio Zerbitzuaren arduraduna.

– Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren ordezkari:

● Titularra: Juan María Concha Aspiroz jauna.

● Ordezkoa: Lorea Soldevilla Palazuelos andrea.

– CONFEBASK-Euskal Enpresarien Konfederakuntzaren ordezkariak:

● Titularra: Jon Bilbao Saralegui jauna.

● Ordezkoa: Manuel Guerrero Igoa jauna.

● Titularra: Montserrat Ruiz Mitjans andrea.

● Ordezkoa: José Ramón Apezetxea Escudero jauna.

● Titularra: Enrique González Sal jauna.

● Ordezkoa: Gonzalo Salcedo Bilbao jauna.

– Langileen aldetik:

ELA zentral sindikalaren ordezkariak:

● Titularra: Leire Txakartegi Iramategi andrea.

● Ordezkoa: Leire Heredia Bilbao andrea.

● Titularra: Janire Domínguez Pérez andrea.

● Ordezkoa: Juan Cruz López Barrena jauna.

CCOO zentral sindikalaren ordezkariak:

● Titularra: Jesús Uzkudun Illarramendi jauna.

● Ordezkoa: Kepa González García jauna.

LAB zentral sindikalaren ordezkariak:

● Titularra: Ibon Zubiela Martín jauna.

● Ordezkoa: Juan José Rodríguez Horna jauna.

UGT zentral sindikalaren ordezkariak:

● Titularra: Esperanza Morales Quicios andrea.

● Ordezkoa: Salvador Aranzueque Cuadrado jauna.

4. artikulua.– Pilar Collantes Ibáñez andreak, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendariak, Kontseilu Nagusian hitz egiteko eskubidea izango du baina boto-eskubiderik ez.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek bukaera ematen dio administrazio-bideari. Aurka egiteko, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, Agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Bigarrena.– Agindu honek 2011ko abuztuaren 2tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 2a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.